


ELGEAMENDI ETA ALTZANIA

P9

KOKALEKUA



DEFINIZIOA ETA IZAERA

PIBEa, Elgeamendi, Urkilla eta Altzania unitateetan dauden bi kokagunez osatuta dago, hauskortasun handia dutelako. Mendebaldean, Elgea eta Urkilla mendilerroak 500 metrotik gorako desnibelak gainditzin ditu, Araba bailara atlantikoekin lotzen duen komunikazio korridorera begira, eta ikusmen irisgarritasun oso handia ematen dio. Era berean, Altzaniako kareharrizko mendilerroak malda handiak eta aldapatsuak ditu, harkaitz soilen gainean; horietan, nabarmen-tzekoak dira Eginoko Harrietako kareharrizko hormatzarra, Arakil ibaiaren korridorea osatzen dutenak, Arabako Lautadak Nafarroarekin duen komunikazioa.

Unitateen fitxan, balio ekologiko, ondarezko edo sozialei dagokienez, unitateen izaerari eta ebaluazioari buruzko informazioa osatzen da. Fitxa hau amaitzeko, PIBE gisa identifikatu izanari balioa eman nahi zaio, paisaiaren babesari begira.

Ahuleziak: Ikusmen irisgarritasun handiko paisaia, Eremu Funtzional osoaren azalera garrantzitsu baten izaera aldatuko lukeena.

Mehatxuak: Inpaktu negatiboa sortzen duen edozein jarduera mota instalatzea (azpiegitura energetikoak, telekomunikazioetakoak edo bestelakoak).

Indarguneak: PIBEn barruko ingurunea, Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Bi-kainen Katalogoko Paisaia Bereziarekin bat datozenak: *Urrunaga, Elgea Urkilla mendilerroa, Aratz Arbarako mendiak*.

Aukerak: Araba Erdialdeko LPPa berrikusteak erraztu egin dezake babesteko eremuak berrikus-tea.

PKH zuzendaria: paisaiaren babesa

PIBEa naturaltasunean edo paisaiaren kalitatean aldaketa bat eragiten duen edozein eral-daketatetik babesteko irudipean sailkatzea gomendatzen da, lehendik ezarritako erabile-rak mantenduz eta inpaktu bisualak sortzen dituzten jarduerak edo azpiegiturak garatzea eragotziz.

- Baimendutako jarduketan baimenak (kontserbazioa eta hobekuntza, infraegitura turisti-koak, abeltzaintza estentsiboa) paisaia-inpakturik ez eragitera baldintzatzea, bai diseinua-gatik beragatik, bai paisai integrazio neurri egokiak hartzeagatik. Eraiki nahi den lurraldeko kanon tradizionalak betetzen dituen eraikuntzaren diseinua, tipologia tradizionalari jarrai-tuz, hala bolumetrietan, materietan, akaberetan eta elementu arkitektonikoen antolamen-duan.

- Paisaiaren egungo dinamika aldatzen duten jarduerak ez baimentzea

PIBEn barruko baso landaketei dagokienez, bereziki ikusgarriak direnak, irregulartasuna are-agotzera bideratutako neurriak ezarri beharko lirateke, ertzetan ekotonoak garatuz, zuhaitz erreserbako eremu perimetralak lortze aldera, modu irregularrean kokatzea lehenesten du-ten espezie autoktonoen aurrementziazekin. Neurri horiek kontuan hartu beharko lukete errendimendua galtzeagatiko konpentsazio ekonomikoa. Zerga tasak murriztuz edo lagun-tzak emanez.